



16/2024 LEHENDAKARI EBAZPENA

Leitza, 2024ko ekainaren 25ean

GAIA: ETXEZ ETXeko LANGILEEN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

Maidar Amantegi Urdalletak, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

ADIERAZTEN DU:

Aldi batez hutsik geratuko diren etxez etxeko langileen lanpostuak, eta orokorrean zerbitzuaren beharrei aurre egin ahal izateko, etxez etxeko langileen aldi baterako kontratazioetarako lan poltsa osatzeko deialdia abiatzea eta deialdia Doneztebeko Enplegu Zerbitzu bulegoak zabaltzea ebatzi zen 15.2024 Lehendakari Ebazpenaren bidez.

Azken honetarako, eskaerak aurkezteko epea uztailaren 2ra arte luzatzea ezinbestekoa dela jakinarazi digute.

Hori aintzat hartuta,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Aldi batez hutsik geratuko diren etxez etxeko langileen lanpostuak, eta orokorrean zerbitzuaren beharrei aurre egin ahal izateko, etxez etxeko langileen aldi baterako kontratazioetarako lan poltsa osatzeko deialdiko epea 2024ko uztailaren 2ko 14:00ra arte luzatzea.

Bigarrena.– Deialdiaren moldaketa hau Mankomunitatearen web orrian argitaratzea, beharrezko ondorioak sor ditzan.

Leitza, 2024ko ekainaren 25ean

LEHENDAKARIA
Maidar Amantegi Urdalleta

IDAZKARIA
Maidar Castilla Elarre

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.

